

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak gaitzetsi egin ditu Baztango alkateari eta Elizondoko zinpeko alkateari egindako mehatxuak

Alkateak EH-Bildu alderdikoak dira eta Nafarroako Gobernuak alderdi horri eskatu dio gainerako alderdietako kideei egiten dizkieten mehatxuak ere salatzea eta aurka egitea

Jueves, 08 de agosto de 2013

Nafarroako Gobernuak gaitzetsi egin ditu Baztango alkate Garbiñe Elizegiri eta Elizondoko zinpeko alkate Mikel Sobrinori egindako mehatxuak; bi alkateek prentsaurrekoan eman dute gaur mehatxuen berri. Gainera, Foru Gobernu demokratikoki aukeratutako bi alkate horien alde agertu da, baita zoritxarrez askatasunez lan egin ezin duten Nafarroako gainerako kargu publiko hautetsien alde ere.

Nafarroako Gobernuaren komunikatuak honako hau dio: “Demokrazian onartezina da kargu publiko hautetsiak mehatxatzea edo iraintzea, eta mehatxu eta irain horiek egiten dituztenak Justiziaren aurrean erantzun behar dute”. Komunikatuan adierazi du, baita ere, Foruzaingoak kasu hori argitzeko uztalean hasitako ikerketak emaitzak ematea espero duela.

Foru Gobernuak, halaber, EH-Bildu alderdiari eskatu dio, Baztango eta Elizondoko alkateak alderdi horretako kide direnez, gainerako alderdietako kideei egiten dizkieten mehatxu eta irainak ere salatzea eta aurka egitea. Izan ere, Nafarroako Parlamentuko gainerako alderdi politikoez ere jasotzen dituzte mehatxuak, bereziki gobernu-erantzukizuna duten udalerrietan; Lourdes Goicoechea lehendakariordeak, esaterako, Olatzagutiako familia-etxean jaso zituen mehatxuak urtarrilean.